

Landareak

Jakoba Errekondo

Lepaluzeak

ZETA HARRAK marugatzearen (*Morus alba*) edo haritzaren (*Quercus robur*) hostoa, hortzerara duena, jaten duen bezala, animalia gehienok hostoren bat edo beste jan behar izaten dugu. Beharko! Landareek beren kasa, beste inor jan beharrik gabe bizimoduari eusten diote. Guk, animalio, bizi nahi badugu beste bizidun batzuk jan beste erremediorik ez dugu. Bizitzeko hil egin behar... Urtea joan eta milurtekoa etorri, landare gajoeak hortzetatik babesten ikasi behar izan dute. Eboluzioaren bilakaeran bakoitzak bere trikimailuak asmatu, antolatu, ondu eta zorrotzu ditu.

Batzuek hostoa bera egokitu eta arantzez josi dute. Gorostia, *Ilex aquifolium*, hauetakoa dugu. Aziendak eta bestelako hosto-jaleak iristen direnerainoko hostoak arantzadunak zabalduko ditu, handik gorakoak, ordea, ertza leun-leuna dutenak. Inork jateko beldurrik ez dagoen hostoak arantzaz hornitzen zertan energia alferrik galdu?

Beste batzuek, hostoetan beharrear, arantzak egurrean dituzte: elorriek (zuria, *Crataegus sp.*, eta beltza, *Prunus spinosa*), arkakaratsak (*Rosa canina*), laharrek (*Rubus fruticosus*), sasi-akaziak (*Robinia pseudoacacia*), akaziak (*Acacia sp.*)... Edozeinek hurbiltzen ditu

ezpain leun sotilak edo mingain sentikorra arantza hauetara... Animalio badakigu, baina, landare hauei kosk egitez gero, puja erabat egurtu eta gogortu aurretik egin behar. Ardiak laharri honelaxe heltzen dio, puntta berri gozoenetik.

Bada Afrikan ardiarena egiten duen beste berde-jale bat, jirafa. *Acacia xanthophloea*, akazia handien gainera lepoa luzatu eta bertako adarretako kimuak jaten ditu, arantza bigunak ere jangarri. Jirafaren moduan, akazia ere ez da motza, eta bere burua babesteko hostoa mingosten duen substantzia bat eransten dio. Alarma ere pizten du, inguruko akaziek jirafak aldean dabiltzala jakin eta substantzia hori hostoetara eraman dezaten abisua zabaltzen du, airez hedatzen den "leherketa" baten bidez, agidanean. Jirafa ere, lepo eta guzti, motz ez eta haizearen kontrako aldetik hurreratuko da akaziara.



STATIC.ZOOMR.COM



JAKOBA ERREKONDO

Babesa

Urteko gau motzenetan gaude. Hau irakurtzen duzunerako eguna mozten hasia izango da. Solstizioa, jai eta ospakizun giroa. Atari, baratze, soro, sagasti eta abarretan, aldeko ditugun indar sakratuak eta gure izpiritualtasunaren ekina biltzeko babes landareak jartzeko garaia: elorri zuria (*Crataegus sp.*) eta batez ere lizarra (*Fraxinus excelsior*). Toki askotan irekita harrapatutako edozein lorez lagunduta, arrosa, malba arrunta...

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorzaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 - Faxe: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net